

UDAL-BATZARRA 05/08

UDAL-BATZARRAK, 2008ko UZTAILAREN 3an EGINDAKO OHIKO BILKURARI DAGOKION AKTA

PARTAIDEAK:

ALKATEA:

Pedro M^a Peñagarikano Labaka

ZINEGOTZIAK:

Ainitze Etxaniz Iraola

Joseba Agirrezabala Ayestaran

Gorka Otxoa-Aizpurua Arrizabalaga

Gregorio Zuaznabar Urkola

Fidel Azpiroz Arrillaga

Jose Ignacio Otermin Garmendia

IDAZKARIA:

Nekane Agirresarobe Etxeberria

ANOETAko Udaletxean, 2008ko uztailaren 3an iluntzeko zazpi terdiak direnean eta aurrez dei egin ondoren, Udal-Batzarra elkartu da, ohiko Bilkura egin asmoz Pedro M^a Peñagarikano Labaka alkate jaunaren mahaiburutzapean eta alboan aipatzen diren Zinegotzi guztiek parte hartzen dutelarik; Eider Garmendia Arrieta eta Alazne Ruiz Luluaga zinegotziak oporretan daude eta idazkaria, Nekane Agirresarobe Etxeberria andrea.

1.- 2008KO MAIATZAREN 8AN OSPATURIKO BILKURAREN AKTA ONESTEKO PROPOSAMENA.

Alkate jaunak galdetzen du ea puntu honi buruz zerbait esatekorik badagoen.

Inorrek ez duela ezer esatekorik kontutan izanik, partaideek aho batez erabakitzen dute maiatzaren 8an ospaturiko akta onestea.

El Sr. Alcalde pregunta a los miembros de la Corporación si quieren hacer alguna manifestación sobre el punto.

Ante la negativa, se acuerda por unanimidad de los reunidos aprobar el acta celebrada con fecha 8 de mayo de 2008.

2.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA, 239 ZENBAKITIK 292 ZENBAKIRA, BIAK BARNE.

Alkate jaunak galdetzen du ea puntu honi buruz zerbait esatekorik badagoen.

El Sr. Alcalde pregunta a los miembros de la Corporación si quieren hacer alguna manifestación sobre el punto.

Fidel Azpiroz zinegotzi jaunak zera adierazten du:

“270 dekretua,, TAGen finkotasunari buruzkoa. Gure poza azaldu nahi dugu. Batetik Anoetako Udalak bere garaian egin zuen hautaketan asmatu egin zuelako eta beste alde batetik Anoetarroi eskaintzen zaigu ongi prestaturiko teknikari bat. Azken batean Anoetarrei eman behar zaie zerbitzua, bere lanpostuari dagokionez, bermatua ikusten dugu. Azkenik esan, era pertsonalean, lanpostu finko bat edukitzeak trebetasuna, ziurtasuna eta motibazio berezi bat ematen duela eta hori nolabait Anoetarrei bueltatuko zaie berak daukan trebetasun eta motibazioaz baliatuz.

273 dekretua, jubilatuen tabernaren ustiapenari buruzkoa. Gure onspena ebazpen honi. Jubilatu etxeak izan dituen arazoak eta bizi izan dituen gabeziak zerbitzua dela eta ikusi ondoren, orain bat atera eta beste bat sartu da, jarraipena du eta zerbitzu horren erabiltzaileak disfrutatuko dute”.

Pedro M^a Peñagarikano Labaka jaunak zera adierazten du:

“Juntako partaide batzuk adierazi didate momentuz, osoondo hasi direla eta gustora daudela”.

3.- HERRITARREN ESKUBIDE ZIBIL ETA POLITIKOEI BURUZKO MOZIOA.

Alkate jaunak ondorengo mozioa irakurri egiten du:

El Sr. Alcalde procede a dar lectura a la siguiente moción:

“Herriarena da erabakia, eta herriarena zilegitasuna, guztia eta bakarra. Hori izan behar da demokraziaren oinarria baita edozein erakundeena ere. 2007ko udal hauteskundeak ez ziren baldintza demokratikoetan garatu, ez zen aukera berdintasunik izan. Espainiar Estatuak Alderdi Politikoen legearen bidez aukeratua izan eta aukeratzeko eskubidea urratu zuen Euskal Herrian. Demokraziaren aurkakoa den lege horren gainetik herritarrek bere borondatea agertu zuten, bere ordezkariak aukeratu zituzten. Batzuk legezko aitortza izan zuten, beste batzuk ukatua. Baina udal ordezkari egiten gaituena ez da legea, herritarren borondatea baizik. Eta hori da errespetatu beharrekoa, herritarren borondatea.

Euskal Herriak bizi duen egoera ez da demokrazia zkoa, ez da bake egoera bat. Euskal Herriak gaztazka nozitzen du, azken hilabete hauetan gordindu den gatazka. Euskal Herriari nazio izaera ukazen zaio, herri bezala dagozkion eskubideak ukatzen zaizkio, herritar bezala dagozkigunak ere. Espainiar eta frantziar estatuak euskal herritarroi beren legediak ezartzen dizkigute, gure borondatearen gainetik. Ikuspegiak anitzak izan daitezke eta behar dute izan, baina gatazkaren muinean bada ukazina den errealitatea, euskal herritarrok ukatua dugu, egun, gure etorkizuna libreki eta demokratikoki aukera guztien artean erabakitzeko eskubidea. Egoera horren isla zuzena pairatzen dugu udalean, herriaren borondatearen gainetik ezartzen delako espainiar Alderdi Politikoen legea, hautetsi batzuei izaera bera ukatuz, beste batzuen eguneroko jardura bertan behera edo legez kanpo utzita. Demokrazia faltan du gatazkak sorburua, eta demokratikoa izan beharko da konponbidea.

Bizi dugun egoera gordinaren aurrean, herritarren ordezkari garenok arduraz jokatu behar dugu. Ezin dugu gatazka ukatu, ukatzeak ez duelako gatazka konpontzen, ezin dugu gatazkaren sorburua ukatu, konponbideak gatazkaren muinera joatea eskatzen digulako, eta ezin ditugu gatazkaren ondorioak ukatu, gatazka eta ondorio guztiak gainditzea izan behar dugulako helburu. Arduraz jokatu behar dugu, behingoz eta betirako gatazkari konponbide bat ematea delako, herriaren aurrean, gure ardura nagusia. Ardura eta zintotasuna da herriari zor dioguna, ez ditugu arazoaren konponbideari mesede eskasa egiten dizkioten alde bakarreko irakurketak behar. Ez ditugu oportunistotik abiatu eta alderdien interesak ase besterik helburu ez dituzten neurriak behar. Udal jardueran inolako oinarria izan ez eta alderdikieriaz erabiltzen diren Zentsura Mozioak ez ditugu behar, ez dira zilegiak, herritik kanpo erabakiak eta

herriaren borondatearen aurka aurkeztuak direlako, alderdi batzuk herritarrek eman ez dieten boterea eskuratzeko erabili nahi dituztelako. Urteetan ezarri eta porrota eta sufrimendua besterik ekarri ez dituzten neurri errepresiboak alboratu behar dira, gatazkaren muinetara jo eta hariketa demokratiko bat egin behar dugu, herritarren esku utzi etorkizuna, aukera guztien artean erabakitzeko eskubidea.

Herri honek ezin du permititu orain 30 urte gertatutakoa errepikatzea, eta gu, nahi duten guztiekin batera, benetako aldaketa politikoa eman dadin baldintzak sortzeko lan egingo dugu.

Arduraz, zintzotasunez, herriari arazoak konpontzeko alternatibak eskaintzea baldin bada gure udal jardueraren oinarria azaldu dezagun bada herri honek bizi duen arazorik larrienari konponbidea emateko konpromisoa eta ausardia.

Hau guztia kontutan hartuta, honako mozioa aurkeztzen dugu udal osoko bilkurak eztabiada eta onar dezan:

1.- Udal honek, herritar oro eskubide zibil eta politiko guztien subjektu dela aldarrikatzen du. Era berean, euskal Herritar orori dagokigu gure herriaren etorkizuna erabakitzea.

2.- Udal hau ez dago herriak aukeraturiko ordezkariak legez kanporatuak izatea onartzeko prest. Hala udal hauteskundeetan jazarpena jasan zuten zerrendetako kide, nola suspetsioren ondorioz eragina jasan dutenak. Hortaz, herritarrek aukeraturiko zinegotziak, eragile eta mintzakide politikako gisa onartzen ditu.

3.- Udal honek, alkate eta zinegotzien aurkako jazarpen judiziala –zitazioak, Ino Galparsoro Arrasateko alkatesaren espetxeratzea,...-salatzen du.

4.- Udal honek herriari aitortzen dio zilegitasun guztia eta bakarra. Hortaz, udal honek, 2007ko maiatzaren 27an, lege arrotz eta neurri errepresiboen gaineratik, herriak aukeraturiko ordezkari guztien aitortza exijitzen du, udalerrri guztietan herritarren borondatea errespetua izan dadin. Ordezkaritza dugun udaletan.

5.- Hori horrela izan dadin, alderdi politikoei LOREG delako 182.2 artikulua aplikatzeko urrats guztiak eman dezatela eskatzen diegu, herriak aukeratu ordezkariak aitortza eta eskubide guztiak bereganatu ditzaten”.

Ondoren, EAJ talde politikoko bozeramailea den Fidel Azpiroz jaunak alkate jaunari hitza eskatzen dio eta ondorengo mozioa irakurtzeko:

A continuación pide la palabra al Sr. Alcalde el portavoz del grupo político PNV, D. Fidel Azpiroz, para proceder a dar lectura a la moción que dice como sigue:

“EUSKAL HERRIAN DEMOKRAZIA ZERO INGURUAN EAJ TALDEAREN MOZIO

1. Bizi dugun etengabeko eskubideen zapalkuntza ez zaio, inolaz ere, gure herriak behar eta desio duen soluzio bilaketari lagungarri. Soluzioa baitator, batetik, eskubide ororen zapalkuntza bazterzetik eta bestetik, gure herriak bizi duen gatazka politikoa soluzio bidean jarriko duen akordio politikoaren bilaketatik, Herri honi berezkoa zaion erabakitze eskubidea oinarri duela.

2. Erakunde politikoaren aurkako lege kanporatze prozesuek, askatasun ideologikoa, adierazpen askatasuna, elkarte askatasuna eta hiritarren partehartzea bezalakoei -guztiak funtsezko eskubide-eragiten diete zuzen zuzenean; halaber, gure Herriko elkarbizitzari, eta gure gizarteak desio duen normalizazio politikotik urruntze gaituzte oso.

3. Udal honek garbi dauka, eta horrela adierazi du behin baino gehiagotan, herri honetako ordezkari politiko bat legez kanpo ipintzeko “ad hoc” egina dagoen Alderdi Politikoen Legea, hala nola zentzu berdinean bultzatu diren beste zenbait lege aldaketak, espainiar Estatuak euskal arazoaren inguruan diseinatu eta ezarri duen estrategia orokorraren zati direla. Baina ezin ahaztu daiteke, estrategi horretan jarraitzeko ETA erakundea indarkeriazko ekintzak burutzen behar duela, bide batez eta ondorioz ezker abertzale politikoa bide politikoak galerazteko.

4. Jakin badakigu, Alderdi Politikoen legea aplikatzen duen Auzitegi Gorenaren epaiak zer dioen LOREGaren 182.2 artikulua aplikazioari buruz. Alegia, akordio baten ondorioz aplikatu ezker, lege iruzurtzat hartua izango litzatekeela. Anoetako Udalak ez du emango legearen urraketa ekarriko duen

urratsik. Horretarako arrazoi franko dago, baina guztiak baten inguruan laburbil daitezke: Urrats horiek espainiar Gobernuari bidea erraztuko lioketela orain arteko estrategian haratago joateko

5.- Giza eskubide guztien aldeko apustua egiten dugulako, Alderdi Politikoen legeak sortarazi dituen ondorioei aurre egiteko gure prestutasuna adierazten dugu berriro ere. Horretarako bideak daudelakoan gaude, baina beti errespetutik abiatuta”.

Pedro M^a Peñagarikano Labaka jaunak zera adierazten du:

“Honen inguruan gauza pare bat adierazi nahi genuke: batetik aurkezten duzue mozio haue eta bestetik erabiltzen duzuen praktika, gure ustez, ez dator bat. Hemen aipatzen da legea arrotza dela, lege horren inguruan bertsio bat egiten duzue gero. Mozio etikoak aurkeztu eta zensura mozioak aurkeztu behar badira ere aurkeztu. Nik uste dut esan bat egiten dela eta egin bestea. Nik, neroni ere Madrilera joan beharrean aurkitu naiz ANVren ilegalizazioa inguruan lekuko bezala deklaratu behar izan dut eta ez dut ikusi ez alde batetik eta ez bestetik ilegalizaio inguruan inolako mugimendurik edo protestarik”.

Jose Ignacio Otermin jaunak zera erantzuten du:

“Oker ez bango, Joseba Egibar ere joan zen.

Pedro M^a Peñagarikano Labaka jaunak zera adierazten du:

“ANVkoan ez”.

Jose Ignacio Otermin jaunak zera erantzuten du:

“EHAKkoan”.

Ondoren, Alkate jaunak bozkatzera eramaten du berak sinatu eta lehenengo irakurritako mozia, ondorengo emaitza lortuz:

A continuación, el Sr. Alcalde somete a votación la moción firmada por él mismo, y que ha sido leída en primer lugar, obteniendo el siguiente resultado:

ALDEKO BOTUAK/VOTOS A FAVOR: **BOST/CINCO** (Pedro M^a Peñagarikano, Ainitze Etxaniz, Joseba Agirrezabala, Gregorio Zuaznabar, Gorka Otxoa-Aizpurua)

AURKAKO BOTUAK/VOTOS EN CONTRA: **BI/DOS** (Fidel Azpiroz, Jose Ignacio Otermin)

ABSTENTZIOA/ABSTENCION: **BAT ERE EZ /NINGUNA**

Ondoren, “Euskal Herrian demokrazia zero inguruan EAJ taldearen mozia”, bozketara eramaten du ondorengo emaitza lortuz:

A continuación somete a votación la moción “Euskal Herrian demokrazia zero inguruan EAJ taldearen mozia”, obteniendo el siguiente resultado:

ALDEKO BOTUAK/VOTOS A FAVOR: **BI/DOS** (Fidel Azpiroz, Jose Ignacio Otermin)

AURKAKO BOTUAK/VOTOS EN CONTRA: **BOST/CINCO** (Pedro M^a Peñagarikano, Ainitze Etxaniz, Joseba Agirrezabala, Gregorio Zuaznabar, Gorka Otxoa-Aizpurua)

ABSTENTZIOA/ABSTENCION: **BAT ERE EZ /NINGUNA**

Bozketaren emaitza ikusirik zera | A la vista del resultado obtenido en
erabakitzen da: | la votación se acuerda:

1.- Udal honek, herritar oro eskubide zibil eta politiko guztien subjektu dela aldarrikatzen du. Era berean, euskal Herritar orori dagokigu gure herriaren etorkizuna erabakitzea.

2.- Udal hau ez dago herriak aukeraturiko ordezkariak legez kanporatuak izatea onartzeko prest. Hala udal hauteskundeetan jazarpena jasan zuten zerrendetako kide, nola suspetsioren ondorioz eragina jasan dutenak. Hortaz, herritarrek aukeraturiko zinegotziak, eragile eta mintzakide politikao gisa onartzen ditu.

3.- Udal honek, alkate eta zinegotzien aurkako jazarpen judiziala –zitazioak, Ino Galparsoro Arrasateko alkatesaren espetxeratzea,...-salatzen du.

4.- Udal honek herriari aitortzen dio zilegitasun guztia eta bakarra. Hortaz, udal honek, 2007ko maiatzaren 27an, lege arrotz eta neurri errepresiboen gainera, herriak aukeraturiko ordezkari guztien aitortza exijitzen du, udlaerri guztietan herritarren borondatea errespeatua izan dadin. Ordezkaritza dugun udaletan.

5.- Hori horrela izan dadin, alderdi politikoei LOREG delako 182.2 artikulua aplikatzeko urrats guztiak eman dezatela eskatzen diegu, herriak aukeratu ordezkariak aitortza eta eskubide guztiak bereganatu ditzaten”.

4.- ONDDOLAR PLATAFORMAK AURKEZTURIKO MOZIOA.

Pedro M^a Peñagarikano Labaka jaunak zera adierazten du:

“Mozio hau nondik dijoan ikusteko esan, Kataluinako bidai bat izan zen San Marcos Mankomunitateak antolaturik. Guk gonbidapena jaso genuen baina arazoak bitarteko ezin izan genuen joan. Ikusi dute atez-ateko zabor bilketa hori nola ematen den Kataluinan eta Mallorkako zenbait herrietan. Dirudienez, bilketa orain egiten dena baino askozaz selektibogoa da eta hori egun ezberdientan zabor ezberdinak biltzen dituzte, egun batean organikoa, hurrengoan kristala, hurrengoan plastikoa eta organikoa berriz etab. Organiko horren banaketa konpostajea egiteko ere beste modu batera egiten dute eta konpostaje hori non egiten den ere ikusi dute. Neurri horiek hartu ahal izan dira Kataluinan lege bat badagoelako. Mozioan esaten den bezala, maila guztietan, Europa Batasunean, hondakinei buruzko arauak, Estatuan, hiri hondakinen buruzko plan nazionala Euskal Erkidegoan, hondakinei buruzko norabideak, Gipuzkoan, hiri hondakinak kudeatzeko plan orokorra eta Mankomunitateetan , plan estrategikoak. Hondakinen esparruan ezarritako lehentasunei begiratzen badiogu ikusiko dugu atez-ateko bilketaren bidez guztietan

ezarritako helburuak lortu ahal izango ditugula, hala nola, hondakinen kopurua eta arriskua murriztea, zati guztiak gaika biltzea edo berrerabiltzearen eta birziklatzearen ehunekoek gora egitea.

Ikusi dutenak esaten dute behintzat, honekin zaborra askozaz gutxiago ateratzen omen da. Horregatik esaten da Udalbatzan aurkezteko eta bertan onartzeko atez ateko metodoa ezartzeko premia, eta bereziki Anoetako Udalerriko materia organikoaren bilketa, etxeko hondakinei dagokienez nahiz HPIME izenarekin ezagutzen direnei dagokienez eta eskumena duten administrazio –eta politika-organoei (Euskal Legebiltzarrari) egindako berariazko eskaera, benetan aitzindari izango den legea onartzeko, Kataluniako Autonomia Erkidegoan hondakinen esparruan dutenaren parekoa, honakoa baitio Kataluniako lege horrek: “Udalerrietako hondakinen gaikako bilketak nahitaezkoa izan behar du, hondakin organikoak biltzeko zerbitzuari gaika entregatzeari dagokionez. Nolabait mozio honetan eskatzen da “declaración de intenciones”, horren alde azaltzea izango litzateke”.

Jose Ignacio Otermin jaunak zera adierazten du:

“Komentario gisa, badakigu zaborra problema dela eta gero eta gehiago egiten dugu eta problema handi bat dago, irtenbideak bilatu behar dira. Katalunian oraindik ere problema asko dute, jendeak ez du betebeharra bezala ikusten. Hemen aspalditik badamagu bereizten zaborra eta oraindik nahastuta azaltzen da. Hor traiektu handia dugu egiteko; ailegatu behar dugu planteamentu batera eta baita ere kontutan hartu behar da kostua, garesti ateratzen da. Badago rekorrido bat, proiektu teknikoak egin beharko dira, landu eta aurrera jo”.

Pedro M^a Peñagarikano Labaka jaunak zera adierazten du:

“Hauek ez dira bi eguntan egiteko lanak. Hemen sensibilizazio kanpaina handi bat eskatzen da, praktika edo esperientzi pilotu batzuk martxan jarri. Usurbilen orain martxan jartzeko asmoa dute. Ikusiko dugu nola funtzioantzen duen. Esan bezala, zaborra arazoa da eta oso garestia da, egida da, lehen kostatzen zitzaiguna eta orain Tolosako Zabor Mankomunitateari kostatzen zaiona asko igo da. Nik beste nolabaiteko estrategiak begiratzea edo ikustea ongi iruditzen zait”.

Fidel Azpiroz jaunak zera adierazten du:

“Nik atez ateko bileta honi ikusten diotena da, nolabait metodo bat jarri nahi dela gaika zaborrak bidu eta sailkatzeko. Aipatzen ez dena da hori guztia nola gauzatuko den, desegin behar da eta nola, gabezi bat ikusten diot. Zentzu horretan mozio honen aurrean gure postura abstentzioa izango litzateke”.

Pedro M^a Peñagarikano Labaka jaunak zera adierazten du:

“Nik detailetxo bat aipatzeagatik, atez ateko bilketa egiten duten herrietara joan diren pertsonak ikusi dutena da, herri horietan kontenedorerik ez daudela.. Herriaren sarreran bat eta irteeran bestea. Denboraz gaizki dabilena bota ditzan baina normalean eskatzean uzten dute egunean egunekoa. Segurasko gabeziak badaude”.

Fidel Azpiroz jaunak zera adierazten du:

“Kasualitatez aste honetan zonalde horretan izan naiz eta ikusi nuen zabor organikoko kontenedore marroiak inplantatuta daudela. Aspekto bisuala aldetik ez nuen desberdintasun handia ikusi hemengoarekin konparatuta. Hemen, han baino garbiaren sensazio handiagoa du”.

Gregorio Zuaznabar jaunak zera erantzuten du:

“Lehen esan duzu jasotzen den zaborrekin ze egiten den ez dakizula. Gehiengoa erreziklatu egiten da, materia organikoa konpostarako. Seguruna oso zati txikia geratzen da errausteko”.

Ondoren, alkate jaunak bozketara eramaten du mozioa ondorengo emaitza lortuz: | A continuación el Sr. Alcalde somete a votación la moción presentada obteniendo el siguiente resultado:

ALDEKO BOTUAK/VOTOS A FAVOR: BOST/CINCO (Pedro M^a Peñagarikano, Ainitze Etxaniz, Joseba Agirrezabala, Gregorio Zuaznabar, Gorka Otxoa-Aizpurua)

AURKAKO BOTUAK/VOTOS EN CONTRA: BAT ERE EZ /NINGUNA

ABSTENTZIOA/ABSTENCION: BI/DOS (Fidel Azpiroz, Jose Ignacio Otermin)

Bozketaren emaitza ikusirik zera erabakitzen da: | A la vista del resultado obtenido en la votación se acuerda:

1.- Atez ateko metodoa ezartzeko premia, eta bereziki Anoetako udalerriko materia organikoaren bilketa, etxeko hondakinei dagokienez nahiz HPIME izenarekin ezagutzen direnei dagokienez.

2.- Eskumena duten administrazio- eta politika-organanoei (Euskal Legebiltzarrari) egindako berariazko eskaera, benetan aitzindari izango den legea onartzeko, Kataluniako Autonomia Erkidegoan hondakinen esparruan dutenaren parekoa, honakoa baitio Kataluniako lege horrek “Udalerrietako hondakinen gaikako bilketak nahitaezkoa izan behar du, hondakin organikoak biltzeko zerbitzuari gaika entregatzeari dagokienez.

5.- ETORKINEN KANPORATZEKO ONARTU DEN EUROPAR ZUZENTARAUREN AURKAKO MOZIOA.

Alkate jaunak ondorengo mozioa irakurri egiten du: | El Sr. Alcalde procede a dar lectura a la siguiente moción:

“Behean sinatzen dugun zinegotziok etorkin pertsonak kanporatzeko onartu berri den Europar zuzentarauren aurka aurkezten dugun mozioa.- Joan den ekainaren 5ean Europar Batasuneko 27 estatuetakoko barne ministroek, frantsesa eta espainiarra barne, euren estatuetakoko atzerritartasun, erresidentzia eta naziotasun legedia geroz eta betetzeko zailagoa duten etorkin pertsona eta familien aurkako “kanporatzeko zuzentara” onartu zuten.

Neurri honekin gure herrietatik, eurek sortutako edo bultatutako gosetik eta gatazketatik ihes egin eta Europara bizitza egokiago baten bila etorri garenon aurkako jazarpen poliziala eta penala adostu eta areagotu egin nahi dute, gure kriminalizazioa, atxiloketa, atxilotze zentroetan sartzea bilatzen dute.

Onartu berri diren neurri basati hauek Europar Batasunetik kanpotik gatozen pertsonen oinarritzko eskubideak urratzen dituzte. Erresidentzia baimena izan ez edo arrazoi ezberdinengatik berritzeko aukerarik gabe gaudenak Europako Indar Inperialaren menpe geratzeko arriskua dugu. Era berean, garai batean Europan ezagutu genuen zuzenbide Estatuaren oinarritzko printzipioak urratzen dituzte,

azken finean Giza Eskubideen Deklarazioan jasota dauden printzipio ahulak indartzera datozen legeak baliogabetu egiten ditu.

Zuzentarau honek, estatu handi oplizial eta militarizatuek inposatzen dituzten neurrien aurka egiteko herri honek, Euskal Herriak, beharrezkoa duen burujabetza agerian uzten du. Herri honetako sektore batzuen ametsa den Erregioen Europa ere ez da nahikoa egoera hauei aurre egiteko. Azken finean hemen, gure herriko hiru lurraldetan gizarte Zerbitzuetako lege berriak ekarriko dituen neurriak, zuzentarau honen osagarri izango dira.

Gaur eta hemen 18 hilabetez zentro berezietan edota kartzeletan atxilotuta edukitzea ahalbideratuko duen zuzentarau honen alde egin eta inolokolotsarik gabe Giza Eskubideen alde aritzen diren horien hipokresi politikoa salatzen nahi dugu.

Eta Europar parlamentuan, inolako zalantzarik gabe egoera irregular batean utzi dituzten pertsonak inolako babesik eta defentsarik gabe kanporatzea ahalbideratuko duten eta neurri hauek babesik gabe dauden haur eta gazte edota euren herrialdetan torturak eta jazarpenak jasotzeagatik alde egin behar izan dutenen kanporatzeak ahalbideratuko duten ordezkari politikoak, guri etikaz mintzodiren berberak dira.

“Europar Kanporatze Zuzentaraua”, hemendik aurrera, azken hilabete hauetan Giza Eskubideen elkarteak salatzen duten bezala “Lotsaren zuzentaraua” bezala ezagutuko duguna, European 10 miloi eta Euskal Herrian hamarnaka mila pertsonengan eragina izango duena, ekainaren 18an egindako Eurapar Palamentuko bilkuran onartu dute.

Hau guztia kontutuan hartuta Anoetako udaleko osoko bilkurari honako MOZIOA onartzea proposatzen diogu:

MOZIOA.- 1. Anoetako Udalak Europar kanporatze zuzentarau honi ezezko borobilena emante dio.

2. Anoetako Udala Euskal Herriko lurralde osoan kanporatze zuzentaraua aplikatzearen aurka agertzen da.

3.- Anoetako Udalak Euskal Herriak eta bere herritar guztiek, etorkinak barne, migrazio, atzerritartasun, erresidentzia eta naziotasun politika propioa izateko duen eskubidearen urraketa saltasena du.

4.- Akordio honen berri Europar Batasunaren Parlamentuan jakinaraziko zaio.

5.- Akordio hau Espainiar eta Frantziar gobernuari helaraziko zaio”.

Ondoren, EAJ talde politikoko bozeramailea den Fidel Azpiroz jaunak alkate jaunari hitza eskatzen dio eta ondorengo mozioa irakurtzeko:

A continuación pide la palabra al Sr. Alcalde el portavoz del grupo político PNV, D. Fidel Azpiroz, para proceder a dar lectura a la moción que dice como sigue:

“Inmigrazioaren aurkako Itzulera Direktiba.

Orain dela gutxi, Europar Batasuneko 27 estatuak Itzulera Direktiba onetsi dute. Horrek etorkinak kanporatzeko eta atxikitzeke Batasun osorako irizpideak ezarri ditu. Direktiba hori gaitzesten dugula adierazten dugu, arrazista eta xenofobia delako, oinarritzko giza eskubideen aurka doalako eta haren bidez legez kanpoko gizakien azpikategoria sortu delako. Beraz, Anoetako EAJ udal taldeak osoko bilkuran eztabaidatu eta onartzeko ondoko mozioa aurkezten du:

1. Anoetako udalak Europako Legebiltzarrak asteazkenean, 2008ko ekainaren 18an, onetsitako Itzulera Direktibaren erabat aurka dagoela adierazten du. Direktiba horren bidez, inmigratioari buruzko zenbait arau sortu dira, lana eta bizi izateko baldintza duinak lortu nahian (horietarako eskubidea ere izanik) herrialde garatueneren atea jotzen duen kolektibo bat zigortu eta kriminalizatzen dutenak.

2. Anoetako udalaren ustez, Itzulera Direktibak oinarritzko giza eskubideak larriki urratzen ditu, eskubide horiek Europar Batasuneko herrialde gehienek sinatutako nazioarteko itunetan agertzen direla. Bide horretatik joanda, Europar Batasunak iritzi eta jarduera arrazistenik eta xenofoboenerik bere egiten ditu. Horiek sustatzen dituzte etorkizun hobe bat lortu nahian beren herrialdeak utzi besterik egin ez dutenak gaizkile bezala tratatu nahi dituztenak.

3 Anoetako udalak euskal erakunde guztiei, talde politikoei eta herritar guztiei eskatzen die Itzulera Direktibari eusteari ezetz biribila eman diezaiotela, nork bere eskumenen eremuan eta bere aukeren neurrian, Euskadi arrazakeriarik eta xenofobiarik gabeko erkidegoa deklaratu. Oinarritzko giza eskubideak murrizteak, Administrazioak

hala erabakita, epaileen kontrolik gabe, oso aurrekari txarra jarriko du berdintasunerantz doan bidean, eta gizaki ahulagoak sortuko ditu, egoera irregularrean egoteagatik edozein abusu jasoko dituztenak.

4 Anoetako udalak Europar Batasuneko herrialdeei eskatzen die Itzulera Direktibaren edukia berraztertzeke, horrek ahalbidetzen baitu paperik gabeko etorkinak 18 hilabetez atxikitzea, baita bakarrik dauden etorkin adingabeak kanporatu eta bost urtez itzultzea debekatzea ere. Izan ere, direktiba horren bidez askatasunak, giza eskubideak eta gizaki guztion berdintasuna (jatorriak eta iritziak edozein izanda) babesteko tradizio europarra hautsi da, eta hori orain arte ez da inoiz gertatu.

5. Anoetako udalak Gobernu zentralari eskatzen dio Espainiako Estatuan Itzulera Direktiba ez onartzeko eta ez betetzeko. Gure ustez, Gobernu zentralak autonomia-erkidego guztiekin adostu behar du immigrazioari buruzko politika; eta gerra zibilaren eta diktaduraren ondorioz, edo arrazoi ekonomikoengatik, hirurogeiko hamarkadan, gutako askok emigratu behar izan genuenean erabilitako irizpide eta emandako tratu eta arreta berak eskaini behar zaizkio kolektibo horri”.

Ondoren, Alkate jaunak bozkatzera eramaten du “Behean sinatzen dugun zinegotziok etorkin pertsonak kanporatzeko onartu berri den Europar Zuzentzauren aurka aurkako mozioa”, ondorengo emaitza lortuz:

A continuación, el Sr. Alcalde somete a votación la moción “Behean sinatzen dugun zinegotziok etorkin pertsonak kanporatzeko onartu berri den Europar Zuzentzauren aurka aurkako mozioa”, obteniendo el siguiente resultado:

ALDEKO BOTUAK/VOTOS A FAVOR: **BOST/CINCO** (Pedro M^a Peñagarikano, Ainitze Etxaniz, Joseba Agirrezabala, Gregorio Zuaznabar, Gorka Otxoa-Aizpurua)
AURKAKO BOTUAK/VOTOS EN CONTRA: **BAT ERE EZ /NINGUNA**
ABSTENTZIOA/ABSTENCION: **BI/DOS** (Fidel Azpiroz, Jose Ignacio Otermin)

Ondoren, bozketara eramaten du “Inmigrazioaren aurkako itzulera direktiba” mozioa ondorengo emaitza lortuz:

A continuación somete a votación la moción “Inmigrazioaren aurkako itzulera direktiba”, obteniendo el siguiente resultado:

ALDEKO BOTUAK/VOTOS A FAVOR: **BI/DOS** (Fidel Azpiroz, Jose Ignacio Otermin)
AURKAKO BOTUAK/VOTOS EN CONTRA: **BAT ERE EZ /NINGUNA**
ABSTENTZIOA/ABSTENCION: **BOST/CINCO** (Pedro M^a Peñagarikano, Ainitze Etxaniz, Joseba Agirrezabala, Gregorio Zuaznabar, Gorka Otxoa-Aizpurua)

Bozketaren emaitza ikusirik zera erabakitzen da:

A la vista del resultado obtenido en la votación se acuerda:

1. Anoetako Udalak Europar kanporatze zuzentarau honi ezezko borobilena emante dio.
2. Anoetako Udala Euskal Herriko lurralde osoan kanporatze zuzentaraia aplikatzearen aurka agertzen da.
- 3.- Anoetako Udalak Euskal Herriak eta bere herritar guztiek, etorkinak barne, migrazio, atzeritartasun, erresidentzia eta naziotasun politika propioa izateko duen eskubidearen urraketa saltasen du.
- 4.- Akordio honen berri Europar Batasunaren Parlamentuan jakinaraziko zaio.
- 5.- Akordio hau Espainiar eta Frantziar gobernuari helaraziko zaio.

6.- PALESTINOEN ESKUBIDEEN ALDEKO MOZIOA.

Alkate jaunak ondorengo mozioa irakurri egiten du:

El Sr. Alcalde procede a dar lectura a la siguiente moción:

“2008an 60 urte betetzen dira Israelgo estatua ilegalki eta gerraren ondorioz sortu zela. “Nakba” edo benetako katastrofearen 60. urteurrena gogoratuko dute aurten Palestinarrek. Orduz geroztik Israelen gerra estrategiak bere horretan jarriatu du eta Palestinarrek bizi-irauten diardute egoera latz horretan. 2005eko ekainean Mardako (Palestina) eta Arbizuko (Euskal Herria) herriek senidetze agiri batez beren arteko erlazioa hasi zuten. Agiri honetan elkarrekiko elkartasunean konprometitu ziren. Orain, elkartasun hau Euskal Herri guzira zabaldu nahiez, eta Israelgo estatu sionista okupatzaileak lurralde palestinarrean harresia eraikitzen jarraitzen duela ikusirik, honako mozio hau aurkezten dugu:

2004ko uztailaren 9an, Nazioarteko Justizia Auzitegiak, NBEko Batzar Orokorren eskaeraz, Iritsi Kontsultibo irizpen bat eman zuen palestinar lurralde okupatuan eraikitako harresiaren ondorio juridikoei buruz, Irizpen horrek, harresia legez kanpoko delat ezartzen du.

Hau gutxi balitz, Euskal Herritik Palestinara joandako brigadisten informazio zuzenek egiaztatzen dute, Harresia eraikitzeak etxeen suntsiketa dakarrela, soroen suntsipena, ureztatze sareena, akuiferoen isolamendua, palestinar biztanleen ezintasuna beren lan, aisialdi, eskola, hospital eta formakuntza eremuetara iristeko... Honek dakarren kalte ekonomikoarekin, eta baita palestinar askoren hilketarekin ere askotan.

Harresia 2002an hasi ziren eraikitzen, eta gaur egun, lehenbiziko faseko 650 km-ak osatu dira. Harresiarekin 1967. urtera arte okupaturiko lurraldeak Zisjordaniatik banandu nahi ditu Israelek, eta segurtasun arrazoen bidez justifikatzen du. Hala ere, Harresia sigi-saga barneratzen da Zisjordanian Israeli komeni zaion bakoitzean. Honela, ahalik eta kolonia gehien anexionatzen ditu, palestinar lurralde eta akuiferoen gaineko kontrol izugarria erdiesten du, eta palestinar biztanleen arteko banaketa gauzatzen du, palestinar gizartearen esistentzia bera ere bideraezina eginez. Harresia erakitzeo aurreikusiak dauden 3 faseak amaitzen direnean, palestinarrek beren lurren %12^a galduko dute.

Harresia inguru batzuetan 8 metrotako altuera duen porlanezko eraikuntza da, zaintze-dorreekin. Beste alde batzuetan ordea, elektrifikaturiko hesi geruza desberdinez osaturik dago, lubakiekin, patruilatzeo bideekin eta zaintze-kamarekin.

Apartheidaren Harresi honen erakuntza estrategia anker baten alde agerikoena baino ez da. Harresiarekin batera, soilik israeldarrak diren eta judutar erlijioa duten hiritarrentzako ezarritako kolonia eskusiboak daude, bide sareak, putzu eta ur hodiak eta ureztatze-sailak, sare elektrikoak eta itxuraz demokratikoa den legeria baina benetan sakonki baztertzaila dena eta araudi burokratiko erabat baztertzaila duena judutarra ez den edozeinentzako. Honek guziak, Israelek palestinar herriaren aurka gauzatzen ari den genozidioa ea kanporatzea erakusten du, hori bai, itxura “baketsua eta demorkatikoa” duena.

Honez gain, palestinarren hilketak daude, batzuetan kolono israeldarren eskutik zigorgabetasun osoz. Beste batzuetan israelgo armadak eginak, gizadiaren aurkako krimenak direnak dudarik gabe.

Hau guztiagatik, Anoetako Udalak honako hau adierazten du:

Anoetako Udalaren esku dagoen guzia eta bere eskuduntzazkoa den edozer eginen duela, Israelgo gizarte zibila, gobernua eta armada Palestinako lurralde okupatu osotik erretiratzeko eta palestinar guzien eskubide guziak berma ditzaten, behartzeko.

Hau honela ez den bitartean, israelgo produktuekiko boikot komertzial bat deitu, sostengatu eta eginen du. Israelekin negozioak eta inbertsioak egiten dituzten enpresa eta erakunde finantzario guzietan, euskaldunak izan edo ez, hauek eten ditzatela eskatuko du. Era berean udalerraren barrutian, Israelgo edonolako jardura akademiko eta intelektual, kultural nahiz kirol arlokoari boikota eginen dio eta egin dakiola, aldarrikatuko du.

Aldi berean, Palestinako herriarekiko elkartasuna adieraziko du; jardura instituzionalak, kulturalak, komertzialak etab bultzatuz eta horretarako esku artean dituen baliabide guztiak erabiliz”.

Fidel Azpiroz jaunak zera adierazten du:

“Guk honen inguruan orokorrean ados gaude mozio honekin. Hemen ematen diren azkeneko rebindikazioekin ez gatoz bat eta zentzu honetan ez gaude ados nolabaiteko ekimenak ematen diren neurrian bai zentzu batean edo bestean pakearen bila, gatazka era interesatu batean esplotatzen da eta hemen aipatzen diren boikot komertzialak eta beste, ekarpen gutxi egiten dio zentzu horretan konfliktoa zuzendu edo bideratzeari. Zentzu honetan mozio honen aurrean gure abstentzioa emango dugu”.

Ondoren, Alkate jaunak bozkatzera eramaten du mozioa, ondorengo emaitza lortuz:

A continuación, el Sr. Alcalde somete a votación la moción, obteniendo el siguiente resultado:

ALDEKO BOTUAK/VOTOS A FAVOR: **BOST/CINCO** (Pedro M^a Peñagarikano, Ainitze Etxaniz, Joseba Agirrezabala, Gregorio Zuaznabar, Gorka Otxoa-Aizpurua)
AURKAKO BOTUAK/VOTOS EN CONTRA: **BAT ERE EZ /NINGUNA**
ABSTENTZIOA/ABSTENCION: **BI/DOS** (Fidel Azpiroz, Jose Ignacio Otermin)

Bozketaren emaitza ikusirik alkate jaunak irakurritako mozioa onestea erabakitzen da.

A la vista del resultado obtenido en la votación se acuerda aprobar la moción leída por el Sr. Alcalde.

7.- ESZEDENTZIEN INGURUKO PROPOSAMENA.

Anoeta Udaleko langileen ordezkariak aurkeztu duten eszedentziaren inguruko ondorengo proposamena ikusirik:

Visto el escrito presentado por los representantes de los trajadores del Ayuntamiento de Anoeta en relación a “eszedentziaren inguruko proposamena” que dice como sigue:

“ESZEDENTZIAREN INGURUKO PROPOSAMENA.- Egungo legediaren arabera eszedentzia hartzeko eskubidea bermatzen zaie langileei, baina lanpostuaren erreserba ziurtatu gabe, umeak zaintzeko ez bada.

Bestalde, posible da soldatarik gabeko baimena hartzea, baina hiru hilabetez soilik, Udal-Hitz hitzarmenean jasoa dagoen moduan.

Kontuan hartuta gai hau udal bakoitzean era ezberdinetan dagoela garatuta adostutako irizpideen arabera, adibidez: Tolosan bi urte gordetzen da lanpostua, Ibarra hiru, Leaburun urtebete...

Proposatzen dugu Anoetako Udaletxean hiru urte arte gordetzea lanpostua eszedentzia eskatzen duten langileei, eta eskubide hori soldatarik gabeko baimen bezala bideratzea. 2008.06.17”.

AOTk 2008ko uztailaren 1ean | Visto el informe del TAG
eginiko txostena ikusi ondoren. | municipal de fecha 1 de julio de 2008.

Pedro M^a Peñagarikano Labaka jaunak zera adierazten du:

“Langile ordezkariak ekarri duten proposamen bat da eta dirudienez eta begiratu dudanez, ez gehiegi, ez dago garbi eta udaletxe bakoitzak bere modura jokatu du. Hiru urte eskatzen dute, guk gure aldetik ez dugu inolako arazorik”.

Fidel Azpiroz jaunak zera adierazten du:

“Aurkeztu den dokumentazioa pixka bat ikusita eta ez ulertuta langileen aurkako proposamenik, baino langile guztiok ditugu gure eskubidea, zentzu horretan egoki ikusi dugu horrelako proposamena izatea. Baina hala ere, ikusten dugu nolabaiteko hutsune bat, guretzako ez du erreferentziatzen eszedentzi batetik bestera pertsona batek zenbat denbora egon beharko luken lanean, gure iritziz inportantea da hori jakitea. Gero, ez du ere esaten zenbat denbora pasako den langileak eskaera egiten duenetik baimena eman arte, udalak nolabait lanpostu hori bermatu egin behar bait du eta ezta ere zenbat langile batera egon litezke eszedentziarekin. Hor argitze batzuk egokiak ikusten ditut Anoetarrei eman behar zaien zerbitzua era egokian bermatzeko. Bestalde kontsulta egin da Leaburu, Tolosa, Alegia... hauek epe desberdinak dituzte; Eudelekin kontrastatu da irizpide orokorrako bat izateko? Herri hauek ingurukoak dira baina ez zait iruditzen ezaguratsuenak direnik”.

Pedro M^a Peñagarikano Labaka jaunak zera adierazten du:

“Ez dagoenez inon jarrita, nik uste dut kasua gertatu den bakoitzean udaletxeak hartu du erabakia eta ulertuko nuke bakoitzak hartu duela berea. Kasu hauetan, zenbait hitzarmenetan, jartzen du plantilaren zenbatekoa egon liteke eszedentzian. Horrelako gauza batzuk posible den einean zehaztuko genituzke; baita ere behin eszedentzi bat eskatuz gero beste bat disfrutatzeke zenbat urte pasa beharko dute. Nik uste dut hor holako batasun bat bilatzea nahiko zaila dela, irakaskuntzak duen hitzarmenean gauza batzuk adierazten ditu, metalezkoak beste batzuk... horrela”.

Fidel Azpiroz jaunak zera adierazten du:

“Nik gehiago esango nuke administrazio orokorrari begira. Udalhitzek zerbait esaten du Nekane? Begiratu duzu? Zentzu honetan nolabaiteko arau edo espezifikaziorik?”

Idazkariak zera erantzuten du:

“Eskaerari erantsi zaio AOT eginiko txostena berak eraman bait du gaia. Txostenean dioen bezala eszedentzia bakarrik kasu puntual batzuetarako ikusten da baina langileentzat mejora bat denez ez dut ikusten legezkontrako ezer”.

Pedro M^a Peñagarikano Labaka jaunak zera adierazten du:

“Egindako txosten honetan, ondorietan, jartzen du zenbait gauza zehaztea komenigarria litzatekela: aintzinasunatik eskatuko den, batetik bestera zenbat denbora pasa behar den. Berak ere eskatzen du horiek arautuak izatea, ados nago arautu behar dela”.

Jose Ignacio Otermin jaunak zera adierazten du:

“Ados gaude ideiarekin baina aprobatu baino lehen zehaztea eskatuko genuke ; norbaitek premia badu eszedentzia eskatzeko ez, baina bestela...”

Otermin jaunak gaia mahai gainean uztea eskatzen du horrela lanpostua erreserbatu izango duen eszedentziari buruzko irizpideak idatzi eta aztertu ahal izateko. Alkate jaunak eskaera onesten du gaia mahai gainean geratuz.

El Sr. Otermin solicita que se deje el tema sobre la mesa para estudiar y redactar criterios que regulen la concesión de escedencias con reserva de puesto de trabajo. Solicitud que es aceptada por el Sr. Alcalde, quedando el tema sobre la mesa.

8.- ANOETAKO UDALAREN IV. PLANGINTZA ALDIRAKO ERABILERA PLANA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

ANOETAKO UDALAREN IV. PLANGINTZA ALDIRAKO ERABILERA PLANA ikusi ondoren.

Visto el expediente “ANOETAKO UDALAREN IV. PLANGINTZA ALDIRAKO ERABILERA PLANA”.

Kontutan izanik PLANari Eusko Jaurlaritzako Kultura Batzordeko Hizkuntza Politikarako departamentuak aldeko txostena eman diola.

Considerando que dicho PLAN ha sido informado favorablemente por el Departamento de Cultura. Política Lingüística del Gobierno Vasco.

Udal euskera teknikariak 2008ko apirilaren 2an eginiko txostena ikusi ondoren.

Visto el informe del técnico de euskera de fecha 2 de abril de 2008.

Euskera batzordeak, 2008ko apirilaren 9an emaniko diktamina ikusi ondoren.

Visto el dictamen de la Comisión de Euskera de fecha 9 de abril de 2008.

Ainitze Etxaniz andreak zera adierazten du:

“Hurrengo puntua da Anoetako udalak egin duen erabilera plana onartzeko proposamena. Badakigu hizkuntza normalizaziorako 4. plangintza aldian sartu berri garela eta plangintza horretarako erabilera plana prestatu du Anoetako euskera batzordeak. Plan hau HPSri aurkeztu zaio eta oniritzia eman dute eta martxan jartzeko falta den bakarra da pleno honetan onestea”.

Fidel Azpiroz jaunak zera adierazten du:

“Guztiz ados honekin; betiko dilema hori, euskera ezagutzen ez duenari nola jakinaraziko zaio?”.

Ainitze Etxaniz andreak zera adierazten du:

“Hori batzordean hitzegin dugu eta nahiko argi geratu dela uste dut. Egingo da komunikazio kanpaina bat eta hori aurrera dijoa”.

Fidel Azpiroz jaunak zera adierazten du:

“Komunikazio kanpaina behar du baina agian, gaur Anoetan bizi dena komunikazio horren jabe egiten da baina bihar datorrena? Beti geratzen da hutsune bat gaztelera bakarrik dakitenekin”.

Ainitze Etxaniz andreak zera adierazten du:

“Kanpotik datozenak badute lehenengo kontaktu bat euskera batzordearekin eta esaten zaie ze aukera duten etab.”.

Eztabaidaren ondoren, partaideek aho batez onesten dute aurkezturiko ANOETAKO UDALAREN IV. PLANGINTZA ALDIRAKO ERABILERA PLANA.	Tras el debate, se acuerda por unanimidad de los reunidos aprobar “ANOETAKO UDALAREN IV. PLANGINTZA ALDIRAKO ERABILERA PLANA” presentado.
---	---

9.- ADELA CACHOK IPINITAKO ERREKURTSOAREN ERABAKIA.

Udalbatzak epai irmoaren lekukotza jakin du, administrazioarekiko auzi-errekurtsuan emana (prozedura arrunta Legea 98 345/03-3. IZO 00.01.3-03/000345), eta honi buruzkoa dena: administrazioaren isiltasunagatik aurkeztutako ezestea, Anoetako Udalari egindako erreklamazio bati buruzkoa; erreklamazio hau egin zen GI-3650 errepideko espaloian erorketa baten ondorioz etorritako kalteengatik, espaloia egoera txarrean zegoelako. Auzi-jartzailea: Adela Cacho Sanguino. EPAIA honakoa da:	La Corporación se da por enterada del testimonio de la sentencia con caracter firme dictada en el recurso contencioso-administrativo procedimiento ordinario Ley 98 345/03-3. NIG 00.01.3-03/000345 sobre “desestimación presentada por silencio administrativo de la reclamación formulada ante el Ayuntamiento de Anoeta por daños sufridos como consecuencia de una caída en la acera de la Crta. GI-3650 debido al mal estado de la acera”. Demandante: Adela Cacho Sanguino con el siguiente FALLO:
--	--

“Con desestimación del presente Recurso Contencioso-Administrativo nº 345/2003, interpuesto por la procuradora de los Tribunales D. Irene Jimenez Echevarria en representación de Dña. Adela Cacho Sanguino en relación con el acto presunto del Ayuntamiento de Anoeta desestimatorio de la reclamación

efectuada con fecha 18 de junio de 2002 respecto de las lesiones sufridas el 22 de marzo de 2001, al sufrir una caída, debemos:

Primero.- Declarar que el acto administrativo recurrido es conforme a derecho, por lo que debemos confirmarlo y lo confirmamos.

Segundo.- No efectuar expresa imposición de las costas causadas en esta instancia.

Esta sentencia es FIRME y NO cabe contra ella RECURSO ordinario alguno, sin perjuicio de lo cual, las partes podrán interponer los que estimen pertinentes. Conforme dispone el artículo 104 de la LJCA, en el plazo de DIEZ DIAS, remítase oficio a la Administración demandada, al que se acompañará el expediente administrativo así como el testimonio de esta sentencia. Hágase saber a la Administración que en el plazo de DIEZ DIAS, deberá acusar recibo de dicha documentación; recibido éste, archívense las actuaciones. Así por esta nuestra sentencia de la que se llevará testimonio a los autos, lo pronunciamos, mandamos y firmamos”.

10.- GALDE-ERREGUAK

Fidel Azpiroz jaunak zera galdetzen du:

“Babes ofizialeko etxeak zorionez abian daude, jendea bizitzen ari da. Ze asmo dago Anoetako udalean babestutako etxebizitzak egiteko?”

Pedro M^a Peñagarikano jaunak erantzuten dio:

“Hemendik aurrera esaten duzu?, plangintza bat martxan dago. Lehen zirenak baino gutxiago ez dira izango. Datorren astean uste dut, izango dugula hori buruzko zirriborro bat. Babes ofizialekoak, tasatuak, libreak... izango dira”.

Jose Ignacio Otermin jaunak zera galdetzen du:

“Beste gauza bat, nola dioa Orbinox gaia? Azaroan beste errekurtsua galdu egin zuten, zerbait mugitzen ari da baina ez dakit nola dioan”.

Pedro M^a Peñagarikano jaunak erantzuten dio:

“Ekarri dituzte proiektuak. Informe tekniko zein juridikoak eskatu ditugu eta ezer egin aurretik egingo dugu bileraren bat”.

Jose Ignacio Otermin jaunak zera galdetzen du:

“Orbinox gaiarekin jarraituz, enpresa batzuk eskatu dute irekitze baimena, hirigintzatik pasata dago, idatziz komunikatu zaie enpresa hauei Orbinox pabiloia legeztatu arte beraien aktibitate eskaerak etenda geratzen direla?. Kontutan hartu behar da, lizentzia batzuk “silencio administrativo” bidez lortzen direla. Andresi eman zitzaion paper bat epeak kontutan hartzeko. Ez bazaie erantzuna ematen nahiz gu kontra azaldu, agian, eskubidea dute...”

Pedro M^a Peñagarikano jaunak erantzuten dio:

“Uste dut komunikatu zaiela”.

Fidel Azpiroz jaunak zera galdetzen du:

“Nik bukatzeko, web orria nola dago?”

Pedro M^a Peñagarikano jaunak erantzuten dio:

“Hemen ibili da ADOSekoa eta pare bat gauza flata dira baina hil honean martxan utzita joan nahi nuke oportetara”

Fidel Azpiroz jaunak zera galdetzen du:

“Gero, bazegoen hor bigarren pauso bat, agian interesgarriena. Herritarrekin harreman zuzena edukitzeko, jendeak nolabaiteko partehartzea izatea. Hori ere egokia litzateke. Dokumentu bera publikoa egin, herritarrak egin nahi dituen ekarpenak egiteko. Hor bazegoen horretarako epe bat”.

Pedro M^a Peñagarikano jaunak erantzuten dio:

“Bazegoen, arauetan ere onartzen diren einean horrea bolkatu egin behar dira”.

Eta beste aztergairik ezean, Alkate-Lehendakari Jaunak bilera amaitutzat jotzen du iluntzeko bederatziak hogeitabost gutxi direnean, eta neuk Idazkariak ziurtatzen dudalarik.	Y sin más asuntos que tratar, el Sr. Alcalde-Presidente da por finalizada la sesión a las veinte horas treinta y cinco minutos, lo que yo, la Secretario certifico.
--	---